

Kantatutzera nua: nola hasi ginen Nafarroako Administrazioan

MIKEL TABERNA IRAZOKI
(Nafarroako Gobernuko itzultzaile ohia)

Saiatuko naiz

Segur aski arinegi erantzun nuen baietz, idatzi egingen nuela *Senezera*ko artikulua Nafarroako Administrazioan itzultzaile lanean emandako denborari buruz. Norbaitek jakinen du esplikatzeko zergatik kostatzen zaidan hainbertze ezetz erratea, zergatik sartzen dudana behin eta berriz neure burua honelako estuasunetan. Baina dagoeneko berandu da, ez dit balioko, hitza eman bainuen, eta bete beharko dudalako.

Hogeita zazpi urte eman nituen testu administratiboak itzultzen, baina, lerro hauek entregatzen ditudanerako, ia sei beteko dira erretiroa hartu nuenetik. Gero eta urrunago ditut orduko oroitzapenak. Nola egin iraganera itzultzeko? Ez dakit zenbat ekarriko didan memoriak, ezta nola ere.

Baina saiatuko naiz.

Nondik eta nola

Harat-honat eta ika-mika frankoren ondorengotik, 1986ko abenduaren 15eko *Boletín Oficial de Navarra* argitaratu zen *Ley Foral del Vascuence* izenez bataiatu zuten testua, Nafarroan euskararen ofizialtasuna eta, aldi berean, ez-ofizialtasuna ere ezarri zituen, haren erabilera eta sustapena oro har arautzearekin batera.

Harrezkeroztik, lege hura dugu foru erkidegoko hizkuntza politikan alde batera edo bertzera tira egiteko helduleku beharbada nagusia.

Legearen zehaztapenen artean bazen bat zeinaren ondorioz estreinako aldiz behar izango zuten Nafarroako Administrazioa zenbait dokumentu klase euskaraz ere sortzeko. Konparazio batera, *boletín* huraxe bera euskaraz ere argitaratu beharko zuen

gatzelaniaz argitaratzen zen aldi berean; eta bertze batean ezartzen zen itzulpen zerbitzu ofiziala sortu beharko zuela Nafarroako Gobernua Iruñean, hura jendez hornitzeko gero, norbaitek egin beharko baitzuen egin beharreko lana.

Hortxe hasi zen dena.

1988an sartu ziren lehenbiziko zazpi itzultzaileak ordura arte inork ukitu gabeko meategira.

EAEn ez bezala, Nafarroan ez zegoen aurrekari historikorik, euskarak ez zuen ordura arte sarrera ofizialik izan Administrazioan; hutsetik hasi beharko zen. Eta zazpi aitzindari haiek erabaki garrantzitsuak hartu behar izan zituzten, bertzeak bertze oinarri-oinarritzko izendapenetan. Hala erabaki zen Nafarroa «komunitatea» izanen zela, ez «elkartea» (uste dut «erkidegoa» ez zela oraindik aukera bat); «governua» eta «parlamentua» izanen zituela, ez «jaurlaritza» eta «legebiltzarra»; «departamentuak», ez «sailak»; «kontseilariak», ez «sailburuak»; legeek «artikuluak» izanen zituztela, ez «atalak»; argitalpena «aldizkari ofiziala» izanen zela, ez «agintaritzaren aldizkaria»; poliziak «foruzain» izanen zirela, ez «ertzain», eta haiek hartzen zituen egiturari «foruzaingoa» deituko geniola... Ez dakit berehala erabaki zen gobernuburuari zegokion izena, «lehen-dakari» hautatu baitzen, ez «presidente».

Beraz, 1990eko otsailean bigarren labealdikoak sartu zirenerako (bertze zazpi lagun;

haien artean ni nerau), jadanik finkatuak ziren eraikin haren lehenbiziko harriak. Aztertze gaia izan liteke lehenbiziko taldeak hartu zituen erabaki haiek ez ote zuten gerorako ildo bat markatu itzultzaile talde hartan; ez ote ziren izan estilo baten lehen adierazpenak.

Handik urte guttira, bertze lau lanpostu sortu ziren, eta denbora luzean hemezortzi bat lagun aritu ginen.¹ Handik honat ez da lanpostu berri askorik sortu, eta gaur egun ere hogeit bat itzultzaile ari dira lanean Nafarroako Gobernuaren Itzulpen Atalean.

Ez dakit nola erabaki ote zen hasierako itzultzaile taldean justu kopuru hura behar zela. Dudarik gabe, aurrekontuek ekarri izan zuten zehaztasuna, «honenbertze duzue aparatua martxan jartzeko; horrekin moldatu beharko duzue». Inondik ere ez zen etorri izanen zerbitzua ongi ematea bermatzeko irizpidea oinarri harturik; ez baitzen inola ere aski. Gerora ere igualtsu segitu baitu, eta gaur egun ere hala baita, garbi dago Administrazioan ere ez dutela serio hartu euskararen presentzia Nafarroako gobernuak joan den hogeita hamasei urte honetan, nire irudiko.

Mestizajea

Lanpostuaren jabe izateko, Euskaltzaindiaren EGA tituluaz gainera (edo Hizkuntza Eskolako gaitasun ziurtagiria; bata nahiz

1. Hasierako hemezortzi haien artean, lau emakumezko baino ez ziren; atalburua, berriz, emakumezkoa zen, baina ez zen itzultzailea. Beraz, alde horretatik, ni orduko gehiengoaren multzokoa nintzen, eta segur aski horrek ere zerbait adieraziko du orduko bizipenek nire baitan utziriko oroitzapenetan. Interesgarria litzateke aztertzea eta jakitea desoreka zera horrek nola markatu ote zituen gure arteko harremanak; horretarako, ordea, bertze ahots batzuk ere beharko lirateke, nireaz gainera. Denborarekin aldatzen joan zen proportzio hori Itzulpen Atalean, eta orain erdi eta erdi dira, gutti goiti beheiti.

bertzea, gaur egungo C1), orduan *lizentzia* deitzen zitzaion mailako ikasketaren bat egina izan behar genuen (oraingo graduaren parekoa), eta aski diferenteak genituenak elkartu ginen hasieran: filologoak, historia-lariak, kimikariak, medikuak, biologoak, kazetariak... Bakarren batek ikastaroa egi-na genuen Martuteneko Itzultzaile Esko-lan, baina, hortik aparte, itzulpen ikasketa formalik ez inork. Eta, hartu berria genuen ofizioan, eskarmentu handirik ere ez gehie-nek. Xabier Olarra bereiz hartu beharko ge-nuke, hura hasia baitzen itzulpen literarioak egiten, lehenik bertzerentzat eta ondotik hiru lagunen artean sortu zuten Igelan ar-gitaratzeko. Geroago etorriko zitzaizkigun Gasteizen Itzulpengintzako masterra edo karrera egi-na zutenak. Nolanahi ere, gure bertzelako ikasketa haiek ere hein batean baliatu genituen, hala itzulgaia ulertzeko nola ordaina emateko tenorean, denetik itzuli behar izaten baikenuen.

Euskara ere ez genuen denek iturri be-retik ikasia: batzuek etxetik, bertze batzuek gaueskola-euskaltegitik, eta baginen erdi galdu ondotik berreskuratua genuenak ere.

Denoi mesede egin zigun mestizaje hark.

Libertatea

Egiteko eta desegiteko libertatea utzi zigu-ten. Lana bazen, nahi adina eta sobra, baina nola egin eta nondik jo gure esku gelditzen zen erabat, gu baikin *espezialistak*. Izan, ez ginen, baina izena bagenuen, hala bataia-tu gintuzten. Gure gainean zeudenentzat hagitzez arrotzagoa zen gaia.

Uste dut poliki samar defenditu ginela, geure maneran: geuk antolatzen genuen ia dena eta geuk markatzen genuen erritmoa, geure buruari exijituz. Eta nola? Horixe zen segur aski inportanteena: elkarri lagunduz, jakintza partekatuz.

Gehienak euskara edo euskaraz irakas-tetik heldu ginen, eta, gehixeago edo gutti-xeago, denek bat egiten genuen euskara bi-ziberritu beharraren kontzientzian; guziek igualtsu ematen genion haize urte batzuk lehenagotik harrotua zen olatuari, bakoi-tzak bere modura eta bere lekuan. Abiapun-tu horretatik, ohartzen ginen euskarak Ad-ministrazioaren eremu latza ere kolonizatu behar zuela, eta gure gain zegoela egiteko hura, bide urratzaile ginela.

Dudarik gabe, erantzukizun handia sen-titzen genuen. Ez genuen zernahi egiten ahal. Fin aritu beharko. Baina hura baino pizgarri hoberik ez. Lortu behar genuen euskarazko testuek erdarazkoen balio bera izatea, eta hartzaileak gai izatea haiek iraku-rri eta arazorik gabe ulertzeko. Ilusio horre-kin aritu ginen batzuk behinik behin.

Mugaz bertzaldeko biztanleak

Hasiera hartan apenas iristen zitzaigun ino-ren iritzirik gure mezua bere funtzioa bete-tzen ari zela sinetsarazteko. Itsaso zabalaren ur azalean kulunkatzen ziren botiletan gal-tzen ote ziren gure idazkiak? Irakurtzen ote zituzten mugaz bertzaldeko biztanleek gure aitorpen amodiozkoak? Edo beheko sua bizteko paper bihurtzen ote ziren zuzen-zuzenean?

Torpedo koxkorren bat aldizkari ofizia-lean argitaratzera bidaltzeko tentazioa ere

izan genuen, probokazio gisara. Ea norbait konturatzen zen. Ez dakit joan ote zen azkenean. Nork daki ez ote den ustekabeen agertuko gure testu zaharretan, inor indusketa egitera animatzen bada.

Erranen nuke kontu horrek habia egin zuela gutako ezkorrenen baitan. Zenbaitek uste baitzuen alferrik ari ginela hainbertze jende hainbertze ordu sartzen, deusetarako ez; hobe zuela Administrazioak gure lana erabili bertze zerbait probetxugarriagoa egiteko: testuliburuak euskaratzeko, adibidez.

Egia erran, ez zen erraza jende aunitzek dastatzea gure sukaldeko gutiziak. Kontuan hartu sortzen genuen gehiena aldizkari ofizialaren mahaian zerbitzatzen gnuela (eta paperean; edizio digitala urte batzuk geroago etorriko zen). Berez, argitalpen hori ez du pertsona arruntak irakurtzen, ez baita edozein estomakak aisa digeritu dezakeena, ohitua egon behar du batek; horretaz gainera, egunero gaztelaniaz jaten zuenarentzat aldaketa handia zen hura utzirik euskarazkoaren alde egitea.

Segur aski gure arteko martinbeltzen pertzepzio gazi hura aldatzen joan izanen zen denborarekin, bertzelako lanak egiten hasi ginenean ikusgarriagoak ziren bertze euskarri batzuetan zabaltzeko: bateko eta bertzeko dibulgazio orriak, publizitate kanpainetako eslogan eta testuak...

Iruditzen zait gaur egun gainditua dagoe-la hasierako uste gaizto hura, frogatu dela hein batean ustela zela, eta inork ez duela dudatan jartzen alor idor horretan ere trebatu behar duela euskarak, administrazio-ko hizkera ere lantzen segitu behar dugula, egunez egun fintzen eta hobetzen, sortzen

eta itzultzen, bertzelako eginbeharrak batere ukatu gabe.

Izan ere, denoi nahitaez ezartzen zai-gun paisaia etengabe ari zaizkigu gure erakundeak bonba-mezuak gupidarik gabe igortzen, belarrietarako nahiz begietarako bazka, ahotsa eta irudia, eta inportantea da hortik heldu zaiguna ere euskaraz eta ongi emana egotea.

Hedabide orokorrekin ere erakundeetako hotsen oihartzun lana egiten baitute, uste dut denok ohitzen joan garela eta urrats batzuk egin ditugula hizkera administratiboan normalizatzeko bidean, urte hauetan guzietan aritzearen poderioz, oraindik ere puska luzea egiteko falta bada ere.

Zenbat zuzentzaile, hainbertze estilo

Gure gainetik kontrolik ez bazen eta kanpotik abisurik etortzen ez bazen, geuk zaindu beharko genuen gure lanaren kalitatea. Beharrezkoa zen autoexijentzia eta autokritika praktikatzea.

Gure lantaldean ez zen inoiz sortu zuzentzaile lanposturik. Gaur egun ere ez da, nik dakidala. Hala ere, zuzentze lana egin egiten zen (eta da); denek egiten genuen, txandaka. Denon artean adosturik, denbora jakin baterako ardura hartzen zuen gutako bakoitzak, hala egokitzen zitzaionean. Gehienontzat lan neketsua izaten zen zuzenketa, ez genuen sobera gustuko, nik ez behinik behin. Batzuek maite bide zuten, eta haiek denbora luzeagoa ematen zuten eginkizun horretan, euren borondatez.

Zuzentzaileak aholku eta proposamenak egiten zituen. Hizkuntza arauak betetzen ote ziren begiratu zuen, baita informazio

guzia batetik bertzera ekartzen ote zen ere, eta testuaren egokitasuna baloratuko zuen irakurle gisara. Baina, nolanahi ere, zuzenketaren ondotik ere itzultzaileak berak zuen azken hitza beti. Eta denek denengandik ikasi genuen. Ez dut dudarik horretan. Estilo diferenteen arteko batuketa bat sortu zen hondarrean.

Autonomia eta autogestioa

Baliabide gutxirekin hasi ginen itzultzen: alde batetik, gutako bakoitzak zekarren eza-gutza partikularra; bertzetik, une hartan eskura genituen gramatika eta hiztegi-liburu guziak, baten eta bertzeren orokorrak eta UZEIren orduko hiztegi terminologikoak. Lehenbizian, dena paperean, ez baitzen bertzerik; gerora, UZEIren beraren *Euskalterm* datu basea ere baliatzeko aukera izan genuen Internet gabeko urteetan, paperezko bildumaren ordenagailurako bertsioa.

Beraz, sare digitalik gabe aritu ginen denbora batean. Gaztelaniazko tradizio luzeko hizkera administratiboa ongi ulertu behar genuen, eta horrexek bazuen bere koxka, eta ordaina eman behar genion gure euskara zahar baina alor honetan berdearen bitartez. Dena falta genuen. Egutero-egutero makina bat korapilori eman behar izaten genion konponbidea.

Beharrik hiztegi haiek eta datu base hura genituen, eta eskerrak eman behar lan izugarri hura egin zutenei, baina harekin guziarekin ere ez genuen aski. Zalantza aro bat izan zen, proposamen haiek ez zutelako

ponderazio marka edo gisakorik: autoritateak mugatuak ziren, egile bakoitzak berea, eta Euskaltzaindia ez zen inondik ere ageri panorama hartan. Kontsulta sinpleenak urduri jartzen gintuen:

«(...) atzo telefonoz deitu ziguten, nola erran behar den *'consultorio médico'*. Ez dugu finkaturik. Halamoduzko ordain bat eman genuen. Lehengo batean *'Foz de Arbaiun'* atera zitzaigun. Ez dugu erabakita *'Foz'* nola eman. Gaur agertu zaigu sekula atera gabeko hitza: *'nideras'*. Ez dakigu zer den. Inon ez dugu ikusi (egutero horrelakoak). Herriko idazkariari deitu beharko genioke? (Egutero dozena pare bat herritarra deitu beharko genuke). Atzo hirigintzako eta ingeneritzako hitz batzuk itzuli behar genituen. Ez genekien ez zer ziren ez nolako ordaina eman. Nori galdetu? Ahaide eta lagunei? Egutero hiru dozena dei egin beharko genituzke (...).»²

Gure erabaki propioak hartu behar izan genituen, nahitaez. Sasiterminologoaren figura sortu genuen. Zenbait urtez, pertsona bat bakarka; noizbait triunbiratu bat ere izan zen. Itzulpen lanetik libre gelditu ordu batzuetan, eta denbora hori erabili zailentzako aztertu eta taldearentzako proposamenak zertzeko. *Sasi* diot, eginkizun hartan aritu ginenek ez genuelako prestakuntza berezirik; *sasi* diot, baita ere, lanpostu hori ez zelako inoiz agertu organigraman, zuzentzaile lanari zegokiona agertu ez zen bezala. Kasu batean nahiz bertzean, guk geuk erabakitako kontuak ziren. Autonomia eta au-

2. Ordenagailuan aurkitu dudana lantokiko artxibo zahar batetik harturiko lerroak; nire kezkek idatziz adieraziak, gero bilera batean plazaratzeko, 2003ko azaroan. Gure Itzulpen Atalak bazituen hamalau urte lanean hasirik.

togestioa. Gure gaineko arduradunen onepena baguen horretan aritzeko, betiere lana *ateratzen* bazen. Lehenik, produkzioa bermatu behar zen, gero gainerakoak. Horregatik, eginkizun hori boladaka izan zen: ahal zenean eta hura egiteko norbait prest zegoenean.

Open Access izeneko aplikazio batek datu base propioak sortzeko eskaintzen zigun aukeraz baliatu ginen gehienbat; ordenagailu batean zertu, eta disketeetan garraiatzen genituen bertzeetara. Norbaitek orain aurkitu eta bistaratzen ahalko balitu, ikusiko luke zenbat zabor sortzeko kapaz izan ginen ez hain denbora luzean; eta ez dakit hango deus ote litzatekeen gaur egun egiazki birziklagarria.

Planteamendua ez zen behar bezain serioa izan, nire ustez, zeren nahitaezkoa baitzen ardura hori euren gain hartzen zutenak tarteka bederen gainerako lankideekin ere hartu-emanen aritzea, proposamenak eztabaidatzen eta bertze, eta hori zailagoa zen, orduak kentzen genizkiolako *probetxuzko* lanari. Erranen nuke ez zela inoiz finkatu hain beharrezkoa zen dinamika, ez zela laneko martxan behar bezala txertatu eta, ondorioz, emaitza ez zela sekula izan behar bezain baliotsua. Zeren lan boluntarioa ez ezik hein batean boluntariosa ere bai baitzen; alegia, gure ahalak eta borondateak mugatzen zutena (hemen, gure lankide batek aprobeitxatuko zuen harako «*borondatea badegu, emateko ezer ez degu*» hura sartzeko). Egiten baguen, ongi; egiten ez baguen, berdin, segi aitzinera.

Komunikazioa eta inkomunikazioa

Beraz, ariz-ariz baina ezarian-ezarian (!), hiztegi eta formula propio batzuen jabe egin ginen. Baina, jakina, ohartzen ginen gure erabakiek ezin zutela bide luzerik egin, gainerako administrazioetako itzultzaileekin adosten ez bagenituen. Baguen nolabaiteko harremana Nafarroako Parlamentuan eta Iruñeko Udalean gure gisara ari zirenekin, baita herrietan itzulpen lanak egin behar izaten zituzten zenbait euskara teknikarirekin ere, baina hortik aparte deus gutti erkidegoaren muga lerroetatik haratago. Ez zegoen komunikatzeko erraztasunik (telefono arrunta bertzerik ez), edo horretarako behar adinako abilitaderik ez guk. Eta Akademiak segitzen zuen bizi seinalerik eman gabe.

Halako batean hasi zen Internet,³ eta ez segituan baina noizbait ere administrazioen euskarazko testuak ozeano hartan nabigatzen ere bai; urte batzuk joanak ziren ordukotz, ordea. Jakin-minez iltzatu genituen begiak pantailan: bertze gainerakoek zer berri? Ez ginen sobera harritzen nornahiren eta gure artean diskordantziaren bat aurkitzen genuen aldiro. Hantxe islatzen zen koordinazio falta, batasunik eza terminologian. Gure gisara ariko ziren, dudarik gabe, baina normalena zen ondorio desberdinetara iristea, erabaki diferenteak hartzea batean eta bertzean. Horrek ezinegona sorrarazten zuen; etsipena ere bai.

Nola arraio funtzionatuko zuten gure testu haiek irakurle animosoaren begietan, kontzeptu berberak diferente izendatzen bagenituen han eta hemen?

3. Ez dakit zehazki noiz normalizatu zen gure artean, baina 1990eko hamarkadaren azken urteetan izan zela uste dut.

Hegoaldeko administrazioez ari naiz, itzulpen zerbitzu ofiziala genuen erakunde. Bidasoaren bertze aldeko herri batzuetako udaletan ere ari ziren euskarari bide ematen —errotulazioan, konparazio batera—, baina haiekin ere ez genuen inolako zubirik eraiki. Polita litzateke horren berri ere jakitea, zer sentitzen ote zuten orduan herri haietako frankotiratzaileek.

Gogoia ematen zuen erakunde guzietako makineria geldiarazteko, denak elkartu eta behar ziren guziak adostu arte denok preso sartzeko, baina hori ezinezkoa zen, produzitu egin behar baitzen, arestian erran bezala.

Posta elektronikoa martxan jartzea sekulako aitzinamendua izan zen, iraultza koxkor bat. Eta, haren eskutik *Itzulist* posta-zerrenda moduko zerbait etorri zenean (gerora, eta oraindik, *ItzuL*), izugarri zabaldu zen gure panorama, mapa bat jarri zitzaigun eskura, eta bertan euskal itzultzaileon artxipelagoa begien bistan genuen: irakurtzen eta aditzen genituen ahotsek bazuten izena; bagenekien nor, non eta zertan ari zen bakoitza. Hartaz baliatuz iritziak eta arrazoibideak trukatzeko aukera izatea gauza handia izan zen.

Harremanak: amodioa eta desamodioa

Gure langintzaren *I+Gari* zegokionez (esperientzia berri bat zela kontuan harturik, behar-beharrezkoa zen zerbait, alde guzietatik begiratuta), foru erkidegoko agintariek oro har ez zuten inoiz pauso sendorik eman, erran nahi baita, ez zuten sekula bereizi behar bezala hornituriko kontusailik itzulpenen egokitasunari eta kalitateari begira edo terminologiaren batasunaren mesede-

tan egin beharreko ikerketa-lan, batzarre edo gisako ahalegin osagarrietan.

Hala ere, erran beharra dago izan zela hasiera samarrean harturiko erabaki aipagarri bat: Nafarroako Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzak UZEIrekin sinatu zuen hitzarmena (ez dakit zenbat urtez iraun zuen; ez dakit segitzen duen). Hura zela medio, Internet aurreko urteetan hasi ginen ikastetxe haren hiztegi terminologikoen artxibo digitalak ere erabiltzen gure bulegoan (arestian aipatu dut horixe bera). Sortze prozesuan zituzten hiztegi batzuen proiektuen txostenak ere pasatu zizkiguten zenbait aldiz, iritzia eta aholkua emateko aukerarekin. Inportantea eta baliotsua izan zen harreman hura. Telefonoz ere dei mordoxka bat egin genien, laguntza eske (oroitzen naiz nik neronek behinik behin ederki berotu nizkiola belarriak Miel Loinazi, eta hura beti atsegin eta eskuzabal).

Baina, hitzarmen hura kenduta, gure administrazioak ez zuen kezka handirik adierazi alor horretan, ezta ekimen propiorik sustatu ere.

Eusko Jaurlaritzaren mendeko itzulpen zerbitzuetan eta EAEko enpresa aitzindarietan (UZEI, Elhuyar...) sortzen ziren hizkera administratiboa lantzeko proiektuak, hango bulegoetan eta haien aurrekontuetatik, eta haietakoren batean parte hartzeko suertea ere izan genuen; nahi baino gutxiagotan, ordea, batzuetan antolatzaileek ez gintuztelako kontuan hartu, eta bertze batzuetan gure arduradunek ez zigutelako parte hartzea erraztu.

Segur aski bi administrazioen arteko harreman epelaren ondorioz, edo batzuen eta bertzeen borondate eta gogo faltaren kulp-

gatik, ez dakit nik, baina, nire irudiko, ez zen behar bezala baliatu gure lantaldearen esperientzia, hizkera administratiboa taxutu eta zedarritzeko izan ziren ekimen garrantzitsu batzuetan.

Konparazio batera, niretzat ulertezina izan zen Terminologia Batzordearen osaran lekurik ez bermatzea nafarrek (eta Iparraldeko erakundeek) ordezkari finko bat bederen izateko; mingarri samarra ere bai. Bertzerik ez bazen, hiztegien corpusak osatzeko bederen, horrela nekez bilduko zituzten xehe-xehe EAEtik aparteko administrazioetako partikularitasun guziak. Eta, bertzalde, horrek ere ez zuen batere laguntzen guk hiztegi haietan egiten ziren proposamenak xintxo-xintxo onar genitzan, gehienbat ez bazuten bat egiten guk geuk gure eguneroko praktikan erabiltzen genituen eta orduko finkatuxeak genituen terminoekin.

la ezer ez da berdin

Nolanahi ere, gure ekarpen zuzenik gabe ere (haientzat ere kalte), administrazioetako itzultzaileen erresuman jiraka segitu du gurpilak urtez urte, gero eta abiadura handiagoan, batzuen nahiz bertzeen eskarmentu pilaketari esker eta baliabide informatikoen garapenak eskura jarri dizkigun aitzinamendu miresgarrien poderioz.

UZEIren *Euskalterm* haren gainean erai-ki zuen Eusko Jaurlaritzak terminologia banku publikoa, eta sarean txertatu zuen, guzuzon eskura. Euskaltzaindia ere sartua zegoen proiektuan, hondarreko; jautsi zen jokalekuaren hondarrera. Laguntza handia izan zen eta da; nork ukatuko du hori?

Nire azken urteetan, itzulpen memoriak baliatzen hasi ginen, bertze jostailu klase bat iraultza informatikoaren zurrumbiloak ekarri zigun sortaren barrenean, *Trados* eta bertze.

Izugarri aldatu dira arigune diferentetako itzultzaileon arteko harremanak, fuer-te berretu dira. Ez dakit fundamentuzko deusetan ari ote diren bateko eta bertzeko erakundeak, elkarlanerako (mugaz gaindiko ikuspegiarekin, batu beharko gintuzkeen eta denok zaindu beharko genukeen hizkuntza-ren eta erabiltzaileon mesedetan), baina uste dut ez dagoela aitzakiarik tropako beharginok elkarren berri ez izateko eta elkarrekin aritzeko.

31 eskutik bloga ere etorri zen, joan ere bai, eta orain berriz ere bueltan da; erremin-ta ederra, jakingarri eta lagungarri.

Txoil aldatu dira gauzak hasi nintze-netik gaurko egunetara bitarte. Ia deus ere ez da berdin. Tokitan gelditu da hasierako gure funtzionamendu asanbleario eta doi bat kaotiko hura. Gu ere aldatu gara; gaz-teagoak ginen. Gure lantokiaren barrenean akaso igurtzi gehiago izanen zen orduan lankideon artean, makinak ez baitziren hain inportanteak; edo ez, nik zer dakit! Orduan, ahal izan genuena egin genuen, eta orain-goek ere hala egin beharko.

Baina uste dut ez duela balio gehiago luzatzea nire prediku hau. Gehienbat nola hasi ginen kontatu nahi izan dut. Honaino, kitto. Nire garaitsukoak zareten gehienoi ez zaizue hain arrotza izanen kontatu dudana; gerokoek zerbait ikasi izanen dute agian.

Erretiroa hartu nuen itzultzaile automa-tiko neuronala ate joka hasi zenean. Ez dakit ez ote ninduen hark erretiratzeraz bulkatu.

Kontuak kontu, urte zoragarriak eman ditut lanean. Argiak eta ilunak izan dira, nola ez, baina balantza arras alde batera makurtua sentitzen dut. Hagitz gustura ari-

tu naiz; zinez diot. Lagunak egin ditut eta aunitz ikasi dut. Suerte handia izan dudala uste dut.

Ez nau inkomodatzeko besteren lujuak.

Resumen

En 1988, el Gobierno de Navarra creó su Sección de Traducción, en el seno de la Dirección General de Política Lingüística y en virtud de lo establecido en la Ley Foral del Euskera, aprobada dos años antes. En este artículo se relatan las vicisitudes a las que tuvo que hacer frente el grupo de traductores de aquella unidad administrativa, sobre todo en sus primeros años, hasta que se normalizara el uso de Internet y en una época en la que el lenguaje administrativo en euskera, en general, y su terminología, en particular, se encontraban todavía en fase de consolidación.

Résumé

En 1988, le Gouvernement de Navarre a créé son propre service de traduction au sein de la direction générale de la politique linguistique, en vertu des dispositions de la loi forale sur la langue basque, approuvée deux ans plus tôt. Cet article relate les vicissitudes auxquelles le groupe de traducteur-ice-s de cette unité administrative a dû faire face, notamment durant les premières années et jusqu'à la normalisation de l'utilisation d'Internet, et à une époque où la langue administrative en basque, en général, et sa terminologie, en particulier, n'étaient pas encore établies.

Abstract

In 1988, the Government of Navarre created its Translation Section, within the Directorate-General for Language Policy that existed at the time and in accordance with the provisions of the Provincial Law on the Basque Language, which had been approved two years earlier. This article describes how the translators of that administrative unit worked, especially in its early years, before the use of the internet was normalized and at a time when administrative language in Basque in general, and its terminology in particular, had not yet been consolidated.